

auzoaz auzo • auzoaz auzo • auzoaz auzo

herrera


Gizarte aniztasuna

altza-Larratxo nahikoa nahasia dugu. Jendearen jaioterri desberdinak ohitura anitz finkatu du. Oraindik, etxeko mantalarekin kalera irteten den emakumerik bada. Hizkuntzaren aldetik ere desberdintasun ugari dago, erdaldunak gehiengo dira baina gizarte elebidunagoa lortzen saiatzen direnak ugaltzen ari dira.

Dena den, ekintza ugari antolatzen da



LARRAITZ GARMENDIA (391267) ARGAZKIA: IMANOL OTEGI



Lorategietarako auzolana

Gaiztarro auzuneak bere kabuz bertan dauden lorategi eta zuhaitzen egoera larria konpontzea erabaki du. Hori dela eta, azken egunetan tabakoa bota da belarreen eta orain lorategiak ixten ari dira jendeak bere oinak bertan jarri ez ditzan. Zorionak guztiei.

eta Kultur Etxeak eraginik badu horretan. Badu nortasun propioa. Neketsua izango da drogaren eragina kentzea baina jendea, lanerako prest dago.

Herrera eta Bidebietaz

hitzegiterakoan «txip-a» aldatu behar dugu. Logune izatetik auzo deitzera pasa da. Bertako haur eta gazteek lortu dute orain arte guregan hilda zegoen auzo sentimendua piztea eta horrek kaleko

giroan islada zuzena du.

Ezaugarri nagusia da pasotismo arkitektoniko eta instituzionala. Honek ezin egon nabarmena sortzen du. Ez du, hala ere, auzoak geldirik geratzeko asmorik.

altza

Altzako Kale Hezitzaileen inguruan antolatu diren ekintzak ditugu protagonista nagusi aste honetan. Lehenik, koadrila arteko Olinpiadetan parte hartu dutenen artean sari banaketa egingo da kiroldegian ekainaren 8an goizeko 11.00etan.

Gai berarekin jarraituz, ekainaren 10etik 15era «Altzako I. Olinpiadak» erakusketa izango dugu zabalik.

Berriz, hilaren 10ean sexualitateari buruzko 2. kartel lehiaketan parte hartutako 90 lanen erakusketa bukatuko da.

Ekintza guztiek sarrera

dohainik izango dute.

Larratxoko festak bete-betea izango ditugu asteburu honetan. Hurrez alkatea aukeratu da jadanik eta igandera bitartean, musika, dantza, barrea eta algara izango dira. Hasi dira, beraz, udako jaiak gure auzoetan.

OGI BERRI

GUREA, KALITATEA!

Madrid hiribidea, 4 - Tfnoa.: 47 15 21